| **09. Ingurumen**<br>**09.** ***Medio Ambiente*** | **02.** Ur Hornikuntza eta Saneamendua<br>**02.** *Abastecimiento y Saneamiento de Agua* | **440.101** Ingurumen-Azpiegiturak<br>**440.101** *Infraestructuras Ambientales* |

Ekitaldi honetan, honako lanak egin dira:

- Sobakoko tunelaren argiteria egokitzeko lanak.
- Gorlizko pinudiko oinezkoentzako pasabideko egur tratatuko elementuak ordeztea.
- La Arboledan, BI-3755 foru errepidearen azpiko oinezkoentzako tunelak zolaberritzea.
- Meaztegi Berdeko Parkotxa putzuko lursailetako hondakinak garbitu eta haiek ixtea.
- Sukarrietako San Antonio aisiarako eremua lehengoratzeko lanak.
- Galdamesko bide berdean Malpeñako eta Villegasko tunelak finkatzeko lanak egitea.

Honako proiektuak egin dira:

- Markina-Xemeindik Gerkina-Lumora doan tartean Donejakue Bidea lehengoratzeko proiektua.
- Meaztegi Berdea Parkeko 5b aldean oinezkoentzako bidea egiteko proiektua.
- Meaztegi Berdea Parkean Parkotxa, Ostion eta Blondis putzuen artean egurrezko zola duen oinezkoentzako ibilbidea egiteko proiektua.
- E9 Europako itsasertzeko bidezidorra egiteko proiektua (GR 123).

Halaber, kudeaketa gomendio bat garatu da, BASALAN enpresarekin sinatutakoa, parkeak, atsedenguneak eta Ingurumeneko Foru Sail honen mendeko garbiguneak garbitu eta mantentzeko lanak burutze aldera.

Durante este ejercicio se han realizado las siguientes obras:

- Obras de acondicionamiento del alumbrado en el túnel de Sobaco
- Obras de sustitución de elementos de madera tratada de la pasarela peatonal pinar de Gorliz.
- Obras de pavimentación de los túneles peatonales bajo carretera Foral BI-3755 en La Arboleda.
- Limpieza de escombros y cierre de los terrenos del pozo parkotxa en  Meaztegi Berdea.
- Obras de recuperación del área de esparcimiento de San Antonio (Sukarrieta).
- Obras de consolidación de los túneles de Malpeña y Villegas en la vía verde de Galdames.

Se han elaborado los siguientes proyectos:

- Proyecto de recuperación del camino de Santiago, en el tramo Markina-Xemein a Gernika – Lumo.
- Redacción del proyecto de camino peatonal en la zona 5b del Parque Meaztegi Berdea.
- Proyecto de ejecución de paseo peatonal atablado entre los pozos Parkotxa, Ostión y Blondis en el parque Meaztegi Berdea.
- Redacción del proyecto E9 sendero del litoral europeo (GR 123).

Así mismo, se ha desarrollado una encomienda de gestión con la empresa BASALAN para la ejecución de los trabajos de limpieza y mantenimiento de los parques, áreas de esparcimiento y de los garbigunes que dependen de este Departamento Foral de Medio Ambiente.

Toki Ekintzako Planak (Tokiko Agenda 21) ezartzeko diru-laguntzei dagokienez, udalek eta mankomunitateek igorritako proiektuak baloratzeko txosten teknikoak egin dira.

En lo relativo a las subvenciones para la implantación de Planes de Acción Local (Agenda Local 21) se han elaborado los informes técnicos de valoración de los proyectos remitidos por los ayuntamientos/mancomunidades.

## 3.- Aztelanak eta Hidrologia

2012ko ekitaldian Azterketa eta Hidrologia Zerbitzuak honako jarduketa hauek kudeatu ditu:

- Uren kalitaterako estazioetan komunikazio-modemak jarri dira, ekipoen funtzionamendu zuzena egiaztatzeko.
- Mungian oxigeno disolbatua neurtzeko proiektua ordeztu da.
- Elorrioko estazioan amonioa neurtzeko ekipoa ordeztu da.
- Berriatuko estaziorako sarbidean konponketa lanak egin dira.
- Balmasedako eta Elorrioko uren kalitaterako estazioetako hustubideak konpondu dira.
- Gaiartuko estazioan izandako kalteak konpondu dira.
- Ekintza bandalikoen ondorioz Arenaoko estazioan eragindako kalteak konpondu dira.
- Ekintza bandalikoen ondorioz Abusuko estazioan eragindako kalteak konpondu dira.

## 3.- Estudios e Hidrología

Durante el ejercicio 2012 el Servicio de Estudios e Hidrología ha gestionado las siguientes actuaciones:

- Se han colocado módenes de comunicación en las estaciones de calidad de las aguas para comprobar el funcionamiento de los equipos.
- Se ha sustituido el equipo de medición de oxígeno disuelto en Mungia.
- Se ha sustituido el equipo de medición de amonio en la estación de Elorrio.
- Se ha reparado el acceso a la estación de Berriatua.
- Se han reparado los desagües de las estaciones de calidad de las aguas de Balmaseda y Elorrio.
- Se han arreglado los desperfectos sufridos por la estación de Gaiartu.
- Se han reparado los desperfectos causados por actos vandálicos en la estación de Arenao.
- Se han reparado los desperfectos causados por actos vandálicos en la estación de Abusu.

## Gastuen Egitarauen Ebaluaketa (Helburuak)
## *Evaluación de los Programas de Gastos (Objetivos)*

**Saila:** **09** **INGURUMENA**
**Departamento:** ***MEDIO AMBIENTE***

**Eguitaraua:** **440101** **INGURUMEN-AZPIEGITURAK**
**Programa:** ***INFRAESTRUCTURAS AMBIENTALES***

| HEL OBJ | EKI ACC | ADI IND | DESKRIPZIOA DESCRIPCIÓN | ZENBATEKOA/CUANTIFICACION HASIERA/INICIAL | ORAIN/ACTUAL | EGITEA REALIZACIONES |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | | | **BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOAN, BIZKAIKO HERRITAR GUZTIEK UR NAHIKOA ETA KALITATEKOA IZATEA LORTU** ***CONSEGUIR QUE TODA LA CIUDADANÍA BIZKAINA DISPONGA DE AGUA EN CANTIDAD Y CALIDAD SUFICIENTE EN EL AMBITO TERRITORIAL DE BIZKAIA.*** | | | |
| | 1 | | HORNIDURAKO PROIEKTU BERRIAK IDATZI *REDACCIÓN DE NUEVOS PROYECTOS DE ABASTECIMIENTO* | | | |
| | | 1 | Lea-Artibai eskualdeko proiektu kopurua *Nº de proyectos en Comarca Lea-Artibai* | 3 | 3 | |
| | | 2 | Arratia eskualdeko proiektu kopurua *Nº de proyectos en Comarca Arratia* | 2 | 2 | |
| | | 3 | Goi eta Behe Nerbioi eskualdeko proiektu kopurua *Nº de proyectos en Comarca Alto y Medio Nerbioi* | 2 | 2 | |
| | | 4 | Enkarterrietako proiektu kopurua *Nº de proyectos en Comarca Enkarteriak* | 3 | 3 | |
| | | 5 | Busturialdeko proiektu kopurua *Nº de proyectos en Comarca Busturialdea* | 1 | 1 | |
| | 2 | | HASITA DAUDEN HORNIDURA PROIEKTUAK IDAZTEN AMAITU *TERMINACIÓN DE LA REDACCIÓN DE PROYECTOS DE ABASTECIMIENTO YA INICIADOS* | | | |
| | | 1 | Lea-Artibai eskualdeko proiektu kopurua *Nº de proyectos en Comarca Lea-Artibai* | 3 | 3 | 1 |
| | | 2 | Goi eta Behe Nerbioi eskualdeko proiektu kopurua *Nº de proyectos en Comarca Alto y Medio Nerbioi* | 1 | 1 | |
| | | 3 | Busturialdeko proiektu kopurua *Nº de proyectos en Comarca Busturialdea* | 1 | 1 | |
| | 3 | | AURREKO EKITALDIETAN HASITAKO LANEN JARRAIPENA *CONTINUACIÓN DE LAS OBRAS INICIADAS EN EJERCICIOS ANTERIORES* | | | |
| | | 1 | Lea-Artibai eskualdeko proiektu kopurua *Nº de proyectos en Comarca Lea-Artibai* | 3 | 3 | 3 |
| | | 2 | Arratia eskualdeko proiektu kopurua *Nº de proyectos en Comarca Arratia* | 1 | 1 | |
| | | 3 | Goi eta Behe Nerbioi eskualdeko proiektu kopurua *Nº de proyectos en Comarca Alto y Medio Nervión* | 1 | 1 | |
| | | 4 | Enkarterrietako proiektu kopurua *Nº de proyectos en Comarca Encartaciones* | 6 | 6 | 3 |
| 2 | | | **BIZKAIKO IBAIETAKO UREN KALITATEA KONTROLATU** ***CONTROLAR LA CALIDAD DEL AGUA DE LOS RÍOS DE BIZKAIA*** | | | |
| | 1 | | IBAIETAKO UREN KALITATEA NEURTZEKO EKIPO BERRIAK INSTALATU *INSTALACIÓN DE NUEVOS EQUIPOS DE MEDIDA DE CALIDAD DE CALIDAD DEL AGUA DE LOS RÍOS* | | | |
| | | 1 | Ekipo berri kopurua *Nº de nuevos equipos* | 1 | 1 | 5 |
| | 2 | | UR-EMARIA NEURTZEKO ESTAZIOAK MANTENTZEA (28 ESTAZIO DAUDE). | | | |

**Saila:** **09** **INGURUMENA**
**Departamento:** ***MEDIO AMBIENTE***

**Eguitaraua:** **440101** **INGURUMEN-AZPIEGITURAK**
**Programa:** ***INFRAESTRUCTURAS AMBIENTALES***

| HEL OBJ | EKI ACC | ADI IND | DESKRIPZIOA DESCRIPCIÓN | ZENBATEKOA/CUANTIFICACION HASIERA/INICIAL | ORAIN/ACTUAL | EGITEA REALIZACIONES |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | *MANTENIMIENTO DE ESTACIONES DE AFORO (HAY 28 ESTACIONES DE AFORO).* | | | |
| | | 1 | Ekintza/berrikuste kopurua<br>*Nº de actuaciones/revisiones.* | 6 | 6 | 5 |
| 3 | | | **ERAKUNDE ETA TALDE BATZUEI EKONOMIKOKI LAGUNDU HORNIDURA ETA SANEAMENDUKO JARDUERAK EGITEKO**<br>***AYUDAR ECONÓMICAMENTE A INSTITUCIONES Y ORGANISMOS DIVERSOS PARA REALIZAR ACTUACIONES DE ABASTECIMIENTO Y SANEAMIENTO.*** | | | |
| | 1 | | BILBAO BIZKAIA UREN PARTZUERGOAREN DIRU-LAGUNTZA<br>*SUBVENCIÓN AL CONSORCIO DE AGUAS BILBAO BIZKAIA.* | | | |
| | | 1 | Diru-laguntza bezala emandako euroak (milioitan)<br>*Nº de millones de euros subvencionados* | 50 | 50 | 45 |
| | | 2 | Proiektu kopurua<br>*Nº de proyectos* | 45 | 45 | 45 |
| | 2 | | BUSTURIALDEKO UR PARTZUERGOARI DIRU-LAGUNTZA<br>*SUBVENCION AL CONSORCIO DE AGUAS BUSTURIALDEA* | | | |
| | | 1 | Diruz lagundutako milioi euro kopurua<br>*Nº de millones de euros subvencionados* | 6 | 6 | 1 |
| | | 2 | Proiektu kopurua<br>*Nº de proyectos* | 1 | 1 | |
| | 3 | | UDALERRIEI LAGUNTZA EKONOMIKOA EMATEA INGURUMENEKO AZPIEGITURAK EGITEKO<br>*AYUDAR ECONOMICAMENTE A MUNICIPIOS PARA EJECUTAR INFRAESTRUCTURAS AMBIENTALES* | | | |
| | | 1 | Diruz lagundutako milioi euro kopurua<br>*Nº de millones de euros subvencionados* | 4 | 4 | 4 |
| | | 2 | Proiektu kopurua<br>*Nº de proyectos* | 45 | 45 | 45 |
| 4 | | | **HONDAKIN UREN ETA HIRIKO UREN ISURKETA GUZTIAK BATU ETA GARBITZEA BERMATU**<br>***GARANTIZAR LA RECOGIDA Y DEPURACIÓN DE TODOS LOS VERTIDOS DE AGUAS RESIDUALES Y URBANAS*** | | | |
| | 1 | | SANEAMENDUKO PROIEKTU BERRIAK IDATZI<br>*REDACCIÓN DE NUEVOS PROYECTOS DE SANEAMIMIENTO* | | | |
| | | 1 | Goi eta Behe Nerbioi eskualdeko proiektu kopurua<br>*Nº de proyectos en Comarca de Alto y Medio Nervión* | 1 | 1 | |
| | | 2 | Enkarterrietako proiektu kopurua<br>*Nº de proyectos en Comarca de Encartaciones* | 2 | 2 | |
| | | 3 | Busturialdeko eskualdeko proiektu kopurua<br>*Nº de proyectos en Comarca de Busturialdea* | 1 | 1 | 1 |
| | 2 | | AURREKO EKITALDIETAN HASITAKO LANEKIN JARRAITU<br>*CONTINUACION DE LAS OBRAS INICIADAS EN EJERCICIOS ANTERIORES* | | | |
| | | 1 | Lea-Artibai eskualdeko proiektu kopurua<br>*Nº de proyectos en Comarca de Lea-Artibai* | 1 | 1 | 1 |
| | | 2 | Enkarterriak proiektu kopurua<br>*Nº de proyectos en Comarca Encartaciones* | 2 | 2 | 1 |

**Saila:** **09** **INGURUMENA**
**Departamento:** ***MEDIO AMBIENTE***

**Eguitaraua:** **440101** **INGURUMEN-AZPIEGITURAK**
**Programa:** ***INFRAESTRUCTURAS AMBIENTALES***

| HEL OBJ | EKI ACC | ADI IND | DESKRIPZIOA DESCRIPCIÓN | ZENBATEKOA/CUANTIFICACION HASIERA/INICIAL | ZENBATEKOA/CUANTIFICACION ORAIN/ACTUAL | EGITEA REALIZACIONES |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 5 | | | **HIRIKO HONDAKINEN KUDEAKETA**<br>***GESTION DE RESIDUOS URBANOS*** | | | |
| | 1 | | HONDAKINEN TRATAMENDUAREKIN LOTUTAKO PROIEKTUAK<br>*PROYECTOS RELACIONADOS CON EL TRATAMIENTO DE RESIDUOS* | | | |
| | | 1 | Proiektu kopurua<br>*Nº de Proyectos* | 4 | 4 | |
| | 2 | | AZTERKETA ETA LAN TEKNIKOAK EGITEA<br>*REALIZACION ESTUDIOS Y TRABAJOS TECNICOS* | | | |
| | | 1 | Azterketa eta lan kopurua<br>*Nº estudios y trabajos* | 2 | 2 | 2 |

**Sail Egitarau Txostena - GASTUAK**
***Memoria Departamento Programa - GASTOS***

| SAILA / *DEPARTAMENTO* | ATALA / *SECCIÓN* | FUNTZIONALA / *FUNCIONAL* |
|---|---|---|
| **09. Ingurumena**<br>**09. *MedioAmbiente*** | **03.** Ingurumena<br>**03.** *Medio Ambiente* | **440.201** Ingurumena<br>**440.201** *Medio Ambiente* |

## Ingurumena

Ingurumenaren egitarauaren helburua gizarte-ekonomiaz gain ingurumenaren kalitate handia duen lurraldea lortzea da, gizarte-ekonomiaren garapenarekin bateragarria.

Ingurumenaren gaineko politikaren oinarria prebentzio, talde erantzukizun, lehia eta subsidiariotasun printzipioak dira.

Hauexek dira 2012an garaturiko ekintzak:

### 1.- Biodibertsitatea eta paisaia

Ingurumen Sailak ondare naturalari buruzko eskumenak bereganatu ondoren, jarduketa esparru berri bat hasi da, zeinak bilatzen baitu Bizkaiko ondare naturala eta paisaia zaindu eta hobetzea.

Bereganatutako eskumen berrien artean, alderdi garrantzitsuenetako bat da babestutako naturguneen kudeaketa. Horri dagokionez, honakoak dira egin diren jarduketa aipagarrienak:

#### Urkiolako Parke Naturala

Ingurumen hezkuntzarekin eta bisitariei arreta ematearekin lotutako jarduerak interpretazio zentroen bitartez bideratzen dira parke naturaletan. Urkiolako kasuan, Toki Alai zentroan (informazio eta interpretazio zentroa) guztira 11.656 bisitari hartu dira, eta horietatik 5.348 ikasleak izan ziren, 115 ikastetxetakoak. Izan ere, ikastetxe horiek heziketa zikloaren arabera eskaintzen diren bederatzi programetatik bat aukeratua zuten. Haur hezkuntza eta lehen hezkuntzako hiru zikloak artatzen ditugu.

## Medio Ambiente

El Programa de Medio Ambiente tiene como objetivo lograr un territorio con una gran calidad medioambiental, compatible con el desarrollo socioeconómico.

La política medioambiental está basada en los principios de prevención, responsabilidad colectiva, competencia y subsidiariedad.

Las acciones desarrolladas durante el año 2012 son:

### 1.- Biodiversidad y paisaje

Al asumir las competencias sobre patrimonio natural por el Departamento de Medio Ambiente, se inicia un ámbito nuevo de actuación que persigue a la conservación y mejora del patrimonio natural y del paisaje de Bizkaia.

Uno de los aspectos más importantes entre las nuevas competencias asumidas es la gestión de los espacios naturales protegidos. Las actuaciones más relevantes llevadas a cabo al respecto son las siguientes:

#### Parque Natural de Urkiola

Las actividades relacionadas con la educación medioambiental y la atención de visitantes se canaliza en los parques naturales a través de los centros de interpretación. En el caso de Urkiola se han recibido en Toki-Alai (centro de información e interpretación) en total 11.656 visitantes de los cuales 5.348 corresponden a 115 centros escolares que han concertado la visita para realizar uno de los nueve programas que se ofrecen en función del ciclo educativo y que por nuestra parte incluye la educación infantil y los tres ciclos de enseñanza primaria.

Eskaintzen ditugun programa didaktikoen artean, nabarmentzekoa da “Esploratu Urkiolako Parkea” izena daramana, zeina berariaz zuzentzen baitzaie familiei eta lagun-taldeei. Hartan, parte-hartzaileek inguru naturalerako hurbilketa ludikoa egiten dute. Nork bere burua gidatuz gauzatzen da programa, eta interpretazio zentroan eskuratutako material aurrez prestatua erabiltzen da.

Honakoak izan dira parkeak antolatu dituen dinamizazio jarduerak:

Entre los programas didácticos ofertados hay que destacar el denominado “Explora el Parque de Urkiola” dirigido especialmente a familias y grupos de amigos, en el que los participantes pueden llevar  a cabo una aproximación lúdica al medio natural. Se realiza de forma autoguiada y se utiliza un material preparado previamente que se facilita en el centro de interpretación.

Las actividades de dinamización organizadas por el Parque han sido:

| | |
|---|---|
| Urtarrila / Enero | Sentsibilizazio kanpaina / Campaña de sensibilización |
| Martxoa / Marzo | Zuhaitz-eguna Abadiñoko ikasleekin / Día del árbol Abadiño |
| | Zuhaitz-eguna Aramaioko ikasleekin / Día del árbol Aramaio |
| | PR-BI-80 mendi ibilbidea / Itinerario de montaña PR-BI-80 |
| | Eskaladaren erregulazioari buruzko hitzaldi-tailerra./ Charla taller regulación escalada. |
| Apirila / Abril | Untzillaitz Itzulia GR 229 mendi ibilbidea Itinerario de montaña / Vuelta Untzillaitz GR 229 |
| Ekaina / Junio | Urkiolako harkaiztegiko fauna ezagutzeko irteera gidatua. / Salida guiada para conocer la fauna del roquedo de Urkiola. |
| Urria / Octubre | Argazki rallya / Rallye fotográfico |
| Azaroa / Noviembre | Mendi ibilbidea: Udazkena Urkiolan / Itinerario de montaña: El otoño en Urkiola. |
| Abendua / Diciembre | Mendi ibilbidea: Ezkillarko Begia / Itinerario de montaña: Ojo de Ezkillar. |

Bizkaiko naturguneen sareko funtzionamenduaren ildoan aurrera egiteko, "Urkiolako Lagunak" eta "Gorbeiako Parke Naturaleko Lagunak" taldeen datu baseak batzeari ekin zaio. Horrela, bi parkeetan programatutako jarduera guztiak 1.776 pertsonari eta 152 elkarteri jakinarazten zaizkie banaka.

Baztertutako lur-eremuak lehengoratze ekologikoari eta baso-lanei eta basoak berroneratzeko lanei dagokienez, honako jarduerak egin dira:

Con el objeto de avanzar en la línea de funcionamiento en red de los espacios naturales de Bizkaia, se ha procedido a la unificación de las bases de datos de los grupos “Amigos de Urkiola” y “Amigos del Parque Natural de Gorbeia”. De esta forma las actividades programadas en ambos parques se comunican a 1776 personas y 152 asociaciones de forma individualizada.

En lo referente a restauración ecológica de terrenos marginales y trabajos selvícolas y de regeneración en masas forestales las actuaciones realizadas han sido las siguientes:

- 8.000 haritz ale (*Quercus robur*) landatu, babestu eta zurkaiztu dira Saibi parajean.
- *Pinus radiatarekin* landatutako bi lur-eremu basoberritzea, haritz arrunta, lizarra eta urkia moztu ondoren: 0,65 Ha. Urkiolako basoetako Antzarrekopotzueta parajean (Abadiñoko Udala) eta 2,8 Ha Alozear mendigo Arloabarrenen (Izurtzako Udala).
- Txupitazpe mendiko Labarbaltz parajetik (Izurtzako Udala) berreskuratutako ostozabalen masa areagotzea (6,5 Ha), haritz, lizar eta urki landareekin.
- Zuhaitz oinen aukeraketa 4,3 Ha-tan, 1991n eginiko pago eta urki plantazio batean, Durangoko udal barrutiko Santa Luzia ondare-mendian, eta babesteko itxitura perimetrala kentzea.
- Pago-marrak lehengoratzea Dimako udal barrutiko Urtemondo ondare-mendian.

Bide azpiegitura hobetzeari eta konpontzeari dagokienez, hobekuntza batzuk egin dira parkerako sarbidean, Landaederra jolas-eremutik, eta Lemoako Aramotz mendiko bide sareko puntu batzuk konpontzeari ekin zaio.

2012an zehar, mantentze-lanak egiten jarraitu da Santutegiko harrera eremuan eta parkeko jolas-eremuetan.

Era berean, Durangoko eta Abadiñoko autobus-zerbitzua antolatu da, Urkiolako Santutegirako sarbidea errazteko San Antonio eguneko ospakizunak direnean.

- Plantación, protección y entutorado de 8000 ud. de roble (*Quercus robur*) en el paraje de Saibi.
- Reforestación en dos terrenos plantados con *Pinus radiata* tras su corta con roble común, fresno y abedul: 0,65 Ha. En el paraje Antzarrekopotzueta del monte Urkiola basoak (Ayuntamiento de Abadiño) y 2,8 Ha. en el paraje Arloabarren del monte Arlozear (Ayuntamiento de Izurtza).
- Refuerzo de la masa de frondosas (6,5 Ha) recuperada en el paraje Labarbaltz del monte Txupitazpe (Ayuntamiento de Izurtza) con plantas de roble, fresno y abedul.
- 4,3 Ha. de selección de pies en una plantación de haya y abedul efectuada en 1991, en el monte patrimonial Santa Lucia en el T.M. de Durango y retirada del cierre perimetral de protección.
- Recuperación de marras de haya en el monte patrimonial Urtemondo en el Término Municipal de Dima.

Por lo que respecta a la mejora y reparación de infraestructura viaria se ha llevado cabo la mejora del acceso al parque desde el área recreativa de Landaederra y se ha procedido a la reparación en distintos puntos de la red viaria del monte Aramotz de Lemoa.

Durante 2012 se han continuado realizando los trabajos de mantenimiento del área de acogida del Santuario y de las áreas recreativas del parque.

Asimismo se ha organizado el servicio de autobuses desde Durango y Abadiño para facilitar el acceso al Santuario de Urkiola en la celebración del día de San Antonio.

Eginiko azterlanei eta laguntza teknikoei dagokienez, arroketako harraparien kolonien urteko jarraipena egin da, eta eskaladako eremuen zonifikazioa gaurkotu da. Halaber, Urkiolako Parke Naturalean dauden tximeleta-espezieei buruzko lehen azterlan bat egin da.

Hegazti-espezie paseriformeen –*Loxia curvirostra* eta *Serinus citrinella*– funtsezko euskarria den habitata babesteko, pinu gorriko eta larizio pinuko 19 Ha gorde dira, nahi zeta haiek moztea aurrez programatuta zegoen; horrekin, izan ere, mendiaren hasierako antolamenduan aurreikusitakoa aldatu da, eta basa-espezie horien izaerari hobeki egokitzen zaion kontserbaziorako kudeaketa-eredu baterantz bideratu da. Jarduketa honek kalte-ordain ekonomiko bat ekarri dio aprobetxamenduaren titularrari.

Bereziki nabarmentzekoa da Urkiolako Parke Naturalaren Erabilera eta Kudeaketa Arautzeko Planaren izapidetzeari berriz ekin zaiola, eta hari atxiki zaizkiola Habitatei buruzko Zuzentarauari dagozkion kudeaketa-irizpideak, Natura 2000 Sarearen barruan baitago.

Gorbeiako Parke Naturala

2012an zehar, Areatzako Parketxean guztira 8.779 bisitari hartu dira. Horietatik, 3.973 bisitari 134 ikastetxeren bisita itunduei dagozkie; gainerakoak, berriz, taldeen edo bestelako erabiltzaileen bisita ez itunduak izan dira.

Referente a estudios realizados y asistencias técnicas se ha procedido al seguimiento anual de las colonias de rapaces rupícolas y a la actualización de la zonificación de las zonas de escalada. También se ha llevado a cabo un primer estudio acerca de las especies de mariposas presentes en el Parque Natural de Urkiola.

Con el objeto de proteger un hábitat que es el soporte fundamental de las especies de aves paseriformes *Loxia curvirostra* y *Serinus citrinella*, se han preservado 19 Ha. de pino silvestre y pino laricio, cuya corta estaba programada, variando lo previsto en la ordenación inicial del monte, dirigiéndolo hacia un modelo de gestión para la conservación más acorde con la naturaleza de estas especies forestales. Esta actuación ha dado lugar a la compensación económica correspondiente al titular del aprovechamiento.

Especialmente destacable es el inicio de la tramitación de un nuevo Plan Rector de Uso y Gestión de Urkiola al que se incorporan los criterios de gestión correspondintes a la Directiva de Hábitats al formar parte de la Red Natura 2000.

Parque Natural de Gorbeia

Durante 2012 se han recibido en el Parketxe de Areatza un total de 8779 visitantes. De éstos 3973 corresponden a la visita concertada de 134 centros escolares y el resto, a visitas de grupos no concertados u otro tipo de usuarios.

Honakoak dira Gorbeian aurrera eraman diren dinamizazio jarduketak:

Las actividades de dinamización llevadas a cabo en Gorbeia son la siguientes:

| | |
|---|---|
| Otsaila Febrero | “Gure pagoen etorkizuna” hitzaldia / Charla “El futuro de nuestras hayas”. |
| Martxoa / Marzo | “Belaustegi-Ukulugorta-Araneko harri” mendi irteera / Salida de montaña “Belaustegi-Ukulugorta-Araneko harri”. |
| Maiatza / Mayo | “Ubide-Azero-Arimekorta-Ubide” mendi irteera / Salida de montaña “Ubide-Azero-Arimekorta-Ubide |
| Ekaina / Junio | “Itxinako karstaren itzulia” mendi irteera / Salida de montaña: “Vuelta al karst de Itxina”. |
| Urria / Octubre | Jardunaldi mikologikoak / Jornadas micológicas |
| Abendua / Diciembre | Ipuin kontaketa / Cuenta cuentos. |

Asteitxeko masa autoktonoetako 53 Ha-tan mantentze-lanak egin dira; funtsean, kimuak hautatu dira eta marrak berrezarri dira. Beste 10 Ha-tan ere jardun da, estalki begetala berrezartzeko, Upon eta Orolditxun hain zuzen ere. Hori guztia Areatzako Udal Barrutian.

Se han llevado a cabo 53 Ha. de mantenimiento en masas autóctonas en Asteitxe que han consistido fundamentalmente en selección de brotes y reposición de marras, actuando también sobre 10 Ha. para facilitar la regeneración de la cubierta vegetal en Upo y Orolditxu. Todo ello en el Término Municipal de Areatza.

Bestalde, sasiak kendu dira basa bideen sareko lubeta eta bide-bazterretan.

Por otra parte se ha realizado el desbroce de taludes y márgenes en la red de caminos forestales.

Halaber, harri-lubeta bat eraiki da Pagomakurreko sarbidean.

Asimismo se ha construido una escollera de contención en el acceso a Pagomakurre.

Gallartu, Belaustegi, Upokomakatza, Larreder, Pagomakurre eta Saldropoko jolas-eremuetan mantentze-lanak egin dira, eta erabilerak nahiz bandalismoak hondatutako elementuak ordeztu dira.

Se ha procedido al mantenimiento de las áreas recreativas de Gallartu, Belaustegi, Upokomakatza, Larreder, Pagomakurre y Saldropo, sustituyendo los elementos deteriorados por el uso o vandalismo.

Aurreko urteetan egin denaren antzera, San Ignazio eguna dela-eta Gorbeiara ibilgailu partikular gehiegi joateak eragiten duen gehiegizko ingurumen-presioa saihesteko, 2012an, garraioko zerbitzu publiko bat antolatu da, Pagomakurreko jolas-eremura iritsi ahal izateko. Gorbeibus izeneko anezka-mikrobusak antolatuta, 16 ibilgailu joan-etorrian ibili ziren goizeko 7:30etik arratsaldeko 19:30era, etenik gabe.

Análogamente a años anteriores, para evitar la excesiva presión ambiental ocasionada por la afluencia masiva de vehículos particulares a Gorbeia con motivo de la celebración del día de San Ignacio, en 2012, se ha organizado un servicio público de transporte para acceder hasta el área recreativa de Pagomakurre. El dispositivo de lanzadera de microbuses, denominado Gorbeibus, dispuso de 16 de estos vehículos en

Antolaketan hori gauzatu zen Areatzako Udalaren laguntzarekin, eta herrigunean 5 aparkaleku jarriz osatu zen, hain zuzen ere mikrobusenirteera-puntutik hurbil. Ohiko komunikabideetan horri buruz zabaldu zen informazioa osatze aldera, 4.000 esku-orri eta 200 informazio-afixa inprimatu eta banatu ziren.

horario continuo desde las 7h30m. de la mañana hasta las 19h30m. de la tarde. El dispositivo que se organizó en colaboración con el Ayuntamiento de Areatza se complementó con la instalación de 5 aparcamientos en el núcleo urbano, próximos al punto de salida de los microbuses. Para completar la información que al respecto se difundió en los medios de comunicación habituales, se imprimieron y distribuyeron 4000 folletos y 200 carteles informativos.

## Aramañongo Parke Naturala

Karrantzan, Pozolaguatik hurbil dagoen dolomita birrintzeko estazio zaharraren egokitzapen lanak amaituta, Aramañongo Parke Naturaleko eta Ordunteko mendietako GKT-ko Parketxe gisa hasi da zerbitzua ematen. Horrela, interpretazio zentro horren dinamizazio- eta kudeaketa-zerbitzua jarri da abian, eta horrek berarekin ekarri du ingurumen heziketako eta bisitariak hartzeko jarduerak egitea.

2012an aurrera eraman diren jarduketen ardatza izan da ingurunea egokitzea eta Parketxeko edukien instalazioa txekeatzea.

Parkearen erabilera publikoaren ikuspuntutik, bidezidorrak arautzeko plana idatzi da, eta Turtziozko Udal Barrutiko bidezidorretako bat seinalatzeko lanak hasi dira. Halaber, Ranerotik Parketxera iristek bidea egokitzeari ekin zaio.

## Parque Natural de Armañón

Tras la finalización de las obras de adaptación de la antigua estación de machaqueo de dolomita próxima a Pozalagua en Karrantza, ha entrado en servicio como Parketxe del Parque Natural de Armañón y LIC de los montes de Ordunte. De esta forma se pone en marcha el servicio de dinamización y gestión de este Centro de interpretación que implica la realización de actividades de educación ambiental y recepción de visitantes.

Las actuaciones llevadas a cabo en 2012 se han centrado en la adecuación del entorno y en el chequeo de la instalación de contenidos del Parketxe.

Desde el punto de vista del uso público del Parque, se ha redactado el plan director de senderos, iniciándose las actuaciones con la señalización de uno de los senderos en el Término Municipal de Turtzios. También se ha iniciado el acondicionamiento de un camino de acceso al Parketxe desde Ranero.

## Ordunteko GKTa

Ordunteko mendietako GKTaren kudeaketa LIFE+ proiektuaren esparruan hartu beharko da kontuan datozen urteetan: “Ordunte GKTaren kudeaketa jasangarria, esparruaren kontserbazio naturalerako eta bertako baliabideen aprobetxamendurako".

## LIC de Ordunte

La gestión del LIC de los montes de Ordunte hay que considerarla en los próximos años en el marco del proyecto LIFE+: “ Gestión sostenible del LIC de Ordunte para la conservación natural del espacio y el aprovechamiento de sus recursos”.

| SAILA / *DEPARTAMENTO* | ATALA / *SECCIÓN* | FUNTZIONALA / *FUNCIONAL* |
|---|---|---|
| **09. Ingurumena**<br>**09. *MedioAmbiente*** | **03.** Ingurumena<br>**03.** *Medio Ambiente* | **440.201** Ingurumena<br>**440.201** *Medio Ambiente* |

Honakoak dira proiektuaren berariazko helburuak:

- Aurrera egitea Zalamako zohikaztegia leheneratzeko bidean (7130* habitata), haren ingurune perimetrala egonkortuz, ezpondako landaretza berriro jarriz eta bertako hustubideetan dauden inpaktu jakin batzuk zuzenduz.
- Salduero-Pozonegroko larreetako padurak-esfagnalak babestea (7140 habitata), eremu horretako abeltzaintza-aprobetxamenduarekin bateratuz.
- Pagadi azidofiloek okupatu lezaketen eremua berreskuratzea, ekoizpen-aprobetxamendu txikiagoa duten pinudiak eta eukalipto sailak ezabatzearen bitartez.
- Ameztien konplexutasun estrukturala eta beren erresilientzia hobetzea, "basoberatik" "baso garaira" pasatzen lagunduz; izan ere, azken hori irekiagoa da, fuste garai eta sendoak eta askotariko adinekoak ditu, eta haziz birsortzen da.
- Ibaiertzeko haltzadien leheneratze naturalari laguntzea, ertzetako pinuak ezabatzearen bitartez, tarte bakoitzaren beharrekin bat etorriz.
- Ordunte GKTn kokatuta dauden *Woodwardia radicans* y *Trichomanes speciosum* espezieak lokalizatzea eta haien inbentarioa egitea; horrekin batera, oinarrizko irizpideak ezarriko dira haien habitatak leheneratzeko eta mantentzeko.
- Esparruaren erabilera publikoa bultzatzea, eskualdearen garapen sozioekonomikoari laguntzeko, BGLko baliabide naturalen kontserbazioarekin uztartuz.

Los objetivos específicos del proyecto son:

- Avanzar en la restauración de la turbera del Zalama (hábitat 7130*) mediante la estabilización de su zona perimetral, la revegetación del talud y la corrección de determinados impactos en canales por los que desagua.
- Proteger los trampales-esfagnales (hábitat 7140) de los pastizales de Salduero-Pozonegro, de manera compatible con el aprovechamiento ganadero de la zona.
- Recuperar el área de ocupación potencial de los hayedos acidófilos, mediante la eliminación de plantaciones de pino y eucalipto con menor aprovechamiento productivo.
- Mejorar la complejidad estructural de los marojales y su resiliencia, favoreciendo el paso de “monte bajo” a “monte alto” más abierto, con fustes altos y vigorosos, distintas clases de edad y regeneración por semilla.
- Ayudar a la recuperación natural de las alisedas de ribera mediante eliminación de pinos de las orillas acordes a las necesidades de cada tramo.
- Localizar e inventariar las poblaciones de *Woodwardia radicans* y *Trichomanes speciosum* presentes en el LIC Ordunte, estableciendo, además los criterios básicos para la restauración y mantenimiento de su hábitat
- Impulsar el uso público del espacio para contribuir al desarrollo socioeconómico de la zona, de forma compatible con la conservación de los recursos naturales del LIC.

- Ordunte GKTarekin zerikusia duten kolektibo partikularrak eta gizarte osoa leku horretako balio naturalez informatzea eta kontzientziatzea, Natura 2000 Sarean integratzeak duen esanahiaz informatzeaz eta kontzientziatzeaz batera.

- Ordunte BGLko Batasunaren intereseko habitaten balioa nabarmentzen laguntzea, batez ere basoenak, zohikaztegienak eta habitat higroturbosoenak, hainbat espezialista biltzearen eta elkarrekin lan egitearen bitartez.

Proiektua onetsi aurreko jarduketa guztiak 2012an egin dira, eta haien exekuzioa 2013tik 2017ra doan aldiari dagozkio.

2012an zehar, honako azterlan eta lan teknikoak egin dira:

- Galzorian dauden lau taxonen jarraipena egin da (*Matricaria marítima, Eriophorum vaginatum, Genista legionensis y Pentaglottis sempervivens*), bai eta mehatxatutako zortzi taxonen jarraipena ere, aleen edo populazioen kopuruan eta egituretan gertatzen diren aldaketak antzeman ahal izateko; halaber, analisi genetikoak egiten eta germoplasma biltzen jarraitu da.

- Ubarroi mottodunaren 5 kontrol-kolonien zentsu osoa eta jarraipena.

- Ubarroi mottodunei eraztunak jartzeko proposamena. Horren barruan bilduko da egagropilak eta lumak jasotzea hazkuntza-kolonietan eta sorkuntza ondorengo kolonietan, etorkizuneko azterlan genetikoak eta elikadura-azterlanak egiteko.

- Bizkaian inbasoreak diren apoarmatu exotikoen populazioak atera eta kontrolatzea. Horren xedea da lehia gutxitzea eta bertako espezien leku-aldatzea saihestea.

- Arroketako harrapariak monitorizatzea.

- Informar y concienciar a los colectivos particulares relacionados con el LIC Ordunte y a la sociedad en general sobre los valores naturales del lugar y lo que supone su integración en la Red Natura 2000.

- Impulsar la puesta en valor de los hábitats de interés comunitario del LIC Ordunte, concretamente los forestales y los turbosos e higroturbosos, mediante la toma de contacto y el trabajo conjunto de distintos especialistas.

Todas las actuaciones previas hasta la aprobación del proyecto se han efectuado en 2012; correspondiendo su ejecución al periodo que va de 2013 a 2017.

Durante 2012 se han realizado los siguientes estudios y trabajos técnicos:

- Seguimiento de cuatro taxones catalogados en peligro de extinción (*Matricaria marítima, Eriophorum vaginatum, Genista legionensis y Pentaglottis sempervivens*) y seguimiento de ocho taxones amenazados que permitirá detectar los cambios que se produzcan en el número de individuos o poblaciones y en las estructuras así como también continuar los análisis genéticos y recogida de germoplasma.

- Censo completo y seguimiento de 5 colonias de control del cormorán moñudo.

- Propuesta de anillamiento de Cormorán moñudo que incluye recogida de egagrópilas y plumas en colonias de cría y en colonias postgenerativas para futuros estudios genéticos y de alimentación.

- Extracción y control de las poblaciones de galápagos exóticos invasores en Bizkaia. Tiene como finalidad la disminución de la competencia y evitar el desplazamiento de las autóctonas.

- Monitorización de las rapaces rupícolas.

- Bizkaian, mirotz zuriek habiak jartzeko tokiak kokatzea eta haiek kudeatzeko neurriak proposatzea.
- Localización de áreas de nidificación y propuesta de medidas de gestión del Aguilucho pálido en Bizkaia.

- Bizkaiko 5 Zuhaitz Apartekoak antolatzeko plana idaztea. Horren barnean sartzen dira datozen 10 urteetarako mantentze-lanak planifikatzea.
- Redacción del plan de ordenación de los 5 árboles singulares del Territorio Histórico de Bizkaia, donde se incluye la planificación de las labores de mantenimiento para los próximos 10 años.

- Apoarmatu autoktonoen (*Emys orbicularis* eta *Mauremys leprosa)* populazioak kokatu eta jarraitzea.
- Localización y seguimiento de las poblaciones de galápagos autóctonos (*Emys orbicularis y Mauremys leprosa*).

- Bizkaiko fauna mehatxatuaren inbentario irekia egitea, non haiek jaso, batera bildu eta mapetan ezarriko baitira; arau, itun eta zerrenden arabera mehatxatuta dagoen faunari buruzko datuak kudeaketa sistema integratu batean sartuko dira.
- Inventario abierto de la fauna amenazada de Bizkaia donde se recopila, agrupa y se cartografía incorporando a un SIG los datos existentes sobre fauna amenazada según las distintas normas, convenios y listas.

- Azkorriko hareatzan eta haren inguruetan apo lasterkariaren kostaldeko populazioaren jarraipena egitea.
- Seguimiento de la población costera de sapo corredor en el arenal de Azkorri y sus alrededores.

- Pitiusak Uharteetako sugandila inbaditzailearen populazioaren kontrola eta azterlan ekologikoa, Gaztelugatxeko Donibane biotopo babestuan. Kontrol ekologikoa egiteko metodo bat proposatu eta aztertzea.
- Control y estudio ecológico de la población invasora de lagartija de las Pitiusas en el biotopo protegido de San Juan de Gaztelugatxe. Propuesta y examen de un método de control ecológico.

- Parke naturaletako espezie zinegetiko sedentarioen egoera, haiei buruzko datuak ezagutze aldera: ugaritasuna, banaketa, jarduera zinegetikoa, eragindako kalteak eta parkeetako beste jarduera batzuekiko gatazkak.
- Situación de especies cinegéticas sedentarias en los Parques Naturales, para conocer datos sobre la abundancia, distribución, actividad cinegética, daños ocasionados y conflictos con otras actividades de los Parques.

- Baso-igel jauzkariari buruzko ekintza plana. Horren barnean sartzen da Orduñan ezagutzen diren guneetako eta sortutako istil berrietako populazioari buruzko jarraipena.
- Plan de acción para la rana ágil, que incluye el seguimiento poblacional de los núcleos conocidos de Orduña y el de las nuevas charcas creadas.

- Bisoi amerikarraren populazioa kontrolatzeko kanpaina. Aurten, Artibai eta Leako ibai-arroetan zentratuko da, bi eta Ibaizabal, Asua, Butroi eta Urdaibai ibaietako tarte batzuetan ere.
- Campaña de control poblacional del visón americano que este año ha de concentrarse en las cuencas de Artibai y Lea, algunos tramos del Ibaizabal, Asua, Butrón y Urdaibai.

- Arrain hiruarantzaren jarraipena. Haren xedea da gero eta zehaztasun handiagoarekin zehaztea haren banaketa erreala, errute guneak eta errunaldiak, bai eta geratu diren populazio guneetako dinamika ere.

- Seguimiento del pez espinoso, cuyo objetivo es determinar cada vez con más precisión su área de distribución real, localización de las zonas de freza y el periodo en que tiene lugar así como la dinámica de los núcleos poblacionales remanentes.

## 2.- Hondartzak

Bizkaiko Lurralde Historikoak, 28 hondartza ditu kostalde osoan, eta gehienak zerbitzu ugarirekin hornituta daude bertara doazen erabiltzaileentzat.

Ekitaldi honetan, Bizkaiko kostaldeko 28 hondartzak sakon garbitzeko lanak nabarmendu behar ditugu. Maiatzean, indartu egin dira lan horiek udarako prest uzteko.

Garbiketa zerbitzuak 88 pertsonei eman die lana, ordutegi desberdientan. Ekipo mekaniko sofistikatu batekin egin dute lana, eta horri esker, itsasertze bizkaitarra zeharo garbitzea lortu dute. Ekipo mekanikoak hondartza garbitzeko makinak, kamioiak, traktoreak, ripperrak, zisterna-kamioiak, erraztatzekoak, harriak kentzekoak eta abarrez osatuta daude.

Hondartzetako hondakinak gaika bildu eta birziklatzen laguntzeko, ontziak eta hondarrak biltzeko ohiko paperontziak jarri dira.

Urtero bezala, aurtengo udan ere Bizkaiko hondartzek ekipamendu osoa dute. Denboraldi honetan guztira 198 dutxa, 53 iturri, 920 zakarrontzi edo bidoi, 701 parrilla-plataforma, hankak garbitzeko 53 iturri eta 2.037 metro egurrezko pasabide instalatu dira. Nabarmentzekoa da, gainera, 11 hondartzak badituztela umeentzako jolas instalazioak eta beste 16k badituztela bizikleten aparkalekuak.

Hondartzen ondoan 7 atsedenleku daude, mahai, iturri, zakarrontzi eta jezarlekuz hornituak.

## 2.- Playas

El Territorio Histórico de Bizkaia cuenta a lo largo de su litoral, con 28 playas equipadas en su mayoría con numerosos servicios para los usuarios que se acercan a ellas.

Durante este ejercicio destacamos los trabajos de limpieza en profundidad llevado a cabo en las 28 playas que configuran el litoral vizcaíno. Durante el mes de mayo la limpieza se ha reforzado al objeto de prepararlas para la época estival.

El servicio de limpieza ha ocupado en verano a 88 personas, en diferentes horarios, trabajando con un sofisticado equipo mecánico, consiguiendo una óptima limpieza de las diferentes playas que configuran el litoral bizkaino. Este equipo incluye máquinas limpia-playas, camiones, tractores, rippers, camiones cisterna, barredoras, despedradoras..

Para favorecer la recogida selectiva y el reciclaje de los residuos de las playas, se han instalado las habituales papeleras para recogida de residuos de envases y resto.

